

2012KO ZEMENDIAREN 8AN EGINDAKO EZOHIKO UDAL BILKURA

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2012ko zemendiaren 8an, arratsaldeko 7:00etan

BATZARKIDEAK:

Lehendakaria: AITOR APRAIZ IMATZ jauna

Zinegotziak:

- PALOMA DE EPALZA GARCES DE LOS FAYOS
- ELSA MARÍA IMATZ BASARRATE
- IKER MURUAGA GOIKOETXEA
- LUIS FLORENCIO ZABALA SANTA ANA
- GORKA RENTERIA GARAI
- FELICIANO JAUREGUIZAR ORAINDI
- ALBERTO BILBAO BELTRÁN DE GUEVARA
- AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA
- MIREN LUKE VERDES CEARRA
- JON PELI HORMAECHE ASOLO

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren ezohiko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deusela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate jaunaren lehenkaritzapean ondorengo gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

1.- ETXEKO ZABORRAK BATZEAREN ZERBITZUA EMOTEAGAITIKO TASAREN ALDARAZPENA BEHIN-BEHINEAN ONARTU.

Gaiari hasikera emoteko, Aitor Apraiz alkateak, tasaren aldarazpenaren nondik-norakoa era honetara azaldu dau, informazio udal batzordean horren barri emon zan arren:

Indarrean ipini gura dan tasaren tarifak, gutxi gorabehera %33ko igoerea dakarre orain indarrean dagozenakaz alderatu ezker.

Horretarako txosten teknikoak idatzi da etxeko zaborrak batzeak dakartzan gastua kalkulatzeko. Begi-bistakoa da desorekea dagoala diru sarrerak nahikoak ez diralako gastu

arruntak ordaintzeko eta, beraz ez dago beste biderik gastu arruntak murriztu eta diru sarrera arruntak handitzea baino.

Felix Jauregizar zinegotziak:

Guretzako onartezina da lehenengo bidar aste honetako astelehenean tasea aldarazoteko proposamena aurkeztu eta eguen honetan onartu gura izatea, aurretiaz Bildu taldeagaz gaia eztabaidatu barik, hainbat bider eskatu dogun modura. Beraz, EAJ taldearen portaera hori tasearen aldarazpenari ezezkua emoteko arrazoia nahikoa da. Izan be, tasea bere horretan igotea oso gogorra begitantzen jaku, krisi ekonomikoa dala-eta Bakioko familia asko egoera larria pairatzen dagozalako. Hori dala eta, uste dogu zinegotziok herria ordezkatzeko dogun neurrian, gure zeregina egoera horren aurrean begirunea izatea dala, eta, beraz, egoera horretan dagozan familientzat hobariak adostutea.

EAJk BILDUGaz gaia adostuteko aukerea baztertutik ikusten dogu, modu horretan, harek ez daukala BILDUK ordezkatzeko dauan herritarren %45eko ordezkariak kontuan hartu.

Etxeko zaborren bilketaren zerbitzuaren kostua kalkulatzeko egindako txostena ez da zuzena, batetik ez dalako zaborrontzien kostuaren amortizazioa justifikatzen (zaborrontziak noiz erosi diran, euren balioa eta amortizazioa kalkulatzeko modua, gaur eguneko daukien balioa, eta abar), bestetik, txostenean ageri diran zenbakien batuketa txarto eginda dago.

Aitor Apraiz zinegotziak dinotso etxeko zaborren zerbitzuaren kostuaren aurrekontua beti izango dala gitxi gorabeherakoa, zehatza izatea ezinezkoa dalako, eta hiru mila euroko errakuntza egoteak (gastuen zenbatekoa 273.000 euro izanik) ez daukala zerbitzuaren kostuaren zenbatekoa desitxuratu, tasea aldarazoteko arrazoi nagusia zerbitzua emoteagaitiko gastuen eta tasen bidez jasotako diru-sarreraren arteko desoreka danean, eta, beraz, funtsezkoa, begi-bistakoa izanik, gastuen zenbatekoa diru-sarrerena baino askoz be handiagoa izatea dala.

Ostean, eztabaida sortu da EAJ eta BILDU taldeko zinegotzien artean.

Felix Jauregizarrek dino onartezina dala tasen bidez jasotzen dan diru-sarreraren zenbatekoa zerbitzuaren kostuaren zenbatekoa baino %33 gitxiago izatea. Beraz, hori kudeaketa txarraren ondorioa baino ez dala.

Aitor Apraiz alkateak erantzun deutso esanez %33ko alde hori azken urteetan tasea aldarazo ez dalako gertatu dala, ganera, beste herri batzuek alderatu ezker, zabor-bilketaren zerbitzuaren tasaren tarifaren zenbatekoak baxuagoak dira, eta, beraz, egoera hori eutsiezina dala.

Felix Jauregizarrek dinotso hori horrela izan dala gestinoa txarto egin dalako, eta horren ondorioz, bat-batean tasaren tarifak %33ko igotea eta, ganera, herritarren pentzura, onartezina dala.

Amets Jauregizar zinegotziak 2011ko udal hauteskundeak baino hamabost egun lehenago “Herri Barriak” udal aldizkarian agertutako albistea irakurria dau, non udal gobernuaren adierazpenak ageri diran, esanez krisi ekonomikoa dala-eta, Bakioko Udalak hurrengo urterako ez dauzala tasen eta zergen tarifen zenbatekoak igongo, horrela, bada, 2008ko tasen eta zergen tarifen zenbatekoak bere horretan itxiz, 2010ko urtean kontsumorako presioen indizea %4,1 igo arren, eta, horrenbestez, EAJ ez dauzala bete bere egunean egindako konpromisoa.

Felix Jauregizar zinegotziak, beste aldetik, 2009an zabor-bilketa zerbitzua murriztu arren, tasen tarifak lehengo lez geratu izana salatu dau.

Aitor Apraiz alkateak dinotso eztabaida horretan ez dala sartungo. Eta, horrek, lehengoari eutsi deutso, gaineratuz hemen ez gagozala egindako kudeaketa txarra izan dan ala ez epaitzeko, zabor-bilketaren zerbitzuari jagokonez, gastuen eta diru sarrereren arteko orekea bilatzeko baino, osterantzean, zorra pilatzen joango dalako.

Tasea ordaintzeko orduan, hobari eta salbuespenak jarri beharri buruz informazio batzordean egindako aitamenaren ganean, Elsa Imatz zinegotziak adierazo dau horrerri buruzko arautegia arakatu ondoren, esateko moduan dagozala, tasa eta zergen kasuan, udal ordenantzetan ezin dirala horreen gorengo arautegietan ageri ez diran hobari eta salbuespenik ezarri, baina, dana-dala eurak prest dagozala gaiari urtenbidea bilatzeko, talde bien artean moduren bat adostu ostein.

Horrezaz eztabaida sortu da, eta horren barruan, Felixek dino udalbatza honetara heldu orduko talde bien arteko adostasuna itundu behar zala. Aitorrek erantzun deutso indarrean dagoan legediak hobariak eta salbuespenak jartea galarazo egiten dauzala, baina tasen ordainketek zama handia izan leitekezan pertsona edo familientzat urtenbidea bilatzeko prest dagozala, baina gaur-gaurko gaia tasen aldarazpena dala beste barik, zerbitzua emoteagaitiko gastuen eta horreek finantzatzeko diru-sarrereren artean dagoan desorekea leuntzeko asmoz.

Elsa Imatzek hauxe gaineratu dau:

Batetik, Informazio Batzordeko gai bakarra tasea aldarazotea izan zanez, EAJ taldeak aldarazpen horren zergaitia azaldu ebala, eta BILDUK be jakinaren ganean egonda gaia zein izango zan, tasea aldarazo beharra edo ez justifikatzeaz gain, tasea aplikatzeko orduan egin daitekezan hobarien edo salbuespenen nondik-norakoa azaltzeko aukerea izan ebala, horrelako gaiak udalbatzan barik informazio batzordean eztabaidatzekoak diralako.

Bestetik, ez dala udal aparejadorean eta idazkariaren txostenean oinarritu behar bakarrik, tasearen aldarazpenaren arrazoa bilatzeko, bai eta zerbitzuaren gastuen eta diru sarrereren arteko aldean be.

Hobariak eta salbuespenei buruz eztabaida sortu da BILDU eta EAJko zinegotzien artean.

Jarraian, Alberto Bilbao zinegotziak berbea hartu eta galdetu dau ia zein urtetan hasi zan zaborrontzien amortizazioa kontuan hartzen, ze 2010eko kontu orokorrean ez da ageri amortizazioak dagozanik, ezta azken urteetako udal aurrekontuen likidazioetan be; horrela bada, 2008an erositako zaborrontziak 2013an hasiko gara amortizaten?, zelako balioa erantsita?. Beraz, zenbatekoak oker agertzeaz gain, amortizazioak justifikatzen ez diran txosten teknikoan oinarrituta aldarazo gura da tasea.

Azken horrek hauxe adierazo dau be: BILDUK onartzen dau tasea igotzearen beharrezko dagoala, baina horrerik buruzko erabagia talde bien artean ondo landuta egon behar litzateke, krisi ekonomikoa pairatzen dagozan pertsona eta familientzat tarifen igoerek ahalik eta eragin gutxien izan daien, eta hori guztiori aztertzeko orain arte astia egon da behintzat.

Elsa Imatz zinegotziak adierazo dau tasak aldarazoteko arrazoia hauxe dala: azken urtetan inbertsioak egin, gastuak igo eta tasak, barriz, bere horretan jarraitzea, aldatu barik, eta, beraz, badalako ordua gastuen eta diru sarreraren zenbatekoen arteko tartea orekatzeko. Horrenbestez, teknikoek txostena egiteko esan jake, baina bertan azaldutakoa ez da arrazoia tasea aldarazoteko.

Azken horrerik buruz be BILDU eta EAJ taldeetako zinegotzien artean eztabaida sortu da.

Azkenik, idazkariak gogoratu dau aldarazpenaren funtsa hauxe dala: tarifen zenbatekoak orain indarrean dagozenak izan arren, zerga-kuotea hiru hilabetetik behin ordainduko da, eta ez gaur egun onartu dagoan modura lau hilabetetik behin.

Jaraian, Aitor Apraiz alkateak dino botoa emoteari ekingo jakola, eta, hortaz, Aitor Apraiz, Floren Zabala, Gorka Renteria, Paloma Epalza, Iker Muruaga eta Elsa Imatz zinegotzien aldeko botoagaz, eurok korporazioa legez osotzen daben zinegotzien gehiengo osoa izanik, Bakioko Udaltzako, erabagi hau hartu dau:

1.- Etxeko zabor-bilketa zerbitzua emoteagaitiko tasea arautzen dauan ordenantzearen aldarazpena behin-behineko onartzea, aldarazpenaren edukia hauxe izanik:

2) Zerga kuotea tarifa honek aplikatuz zehaztuko da:

a) Ule-apaindegiak eta etxebizitzak, 22,86 € hiru hilabetean behin.

b) Okindegiak, gozoki dendak, janari dendak, supermerkatuak, okelategiak, arraindegiak, tabernak, ostatuak, hotelak, txokoak, banku erakundeak, kiroldegi handiak, olgeta zentro handiak, bilera zentroak eta denetariko dendak, 59,88 € hiru hilabetean behin.

Ostatu edo hoteletan taberna edo jatetxeko zerbitzua egon ezker, jatetxeei buruzko epigrafean adierazotako zenbatekoaren arabera ordaindu beharko dabe zerga hau.

c) Jatetxeak, 76,23 € hiru hilabetean behin.

d) Hurreko edukiontzia 300 metrora edo gehiagora dauken baserriak, 9,78 € hiru hilabetean behin.

Tarifa mota bitan edo gehiagotan dagozan kargapekoek denei jagokezan kopuruak ordaindu behar dabez.

Tarifea aplikatzeko arauak

a) Ondorio guztietarako, tasa hau etxebizitzetako, hotel establezimenduetako eta industriako eta merkataritzako jarduerak egiten diran lokaletako zaborrak eta hiriko hondakin solidoak biltzeagaitik eta hareek hondakindegira eroateagaitik eta isurtzeagaitik eta eskuztatzeagaitik kobratzen da. Zerbitzu horreek gurataez jaso behar dira.

b) Udalak errolda bat prestatuko dau urtero, zerbitzuen onuradunak eta hareek ordaindu beharreko zenbatekoak zehazteko kontuan izan beharreko elementuak argitzeko.

c) Zerbitzuaren onuradunek gertatzen diran alten eta baxen aitorpenak aurkeztu behar dabez.

1. Baxak aurkezteko azken eguna epealdiko azken laneguna izango da, hurrengo epealdian ondorioak izateko. Hau beteten ez dabenek hurrengo epealdiko tasea ordaindu beharko dabe.

2. Ekitaldian gertatzen diran altek ordaindu beharra sortzen dan egunetik izango dabez ondorioak; Administrazioak ordaindu beharreko zenbatekoa jakinarazoko deutse ordaindu behar dabenei.

d) Etxeko zaborrak biltzeko zerbitzua egiteagaitiko tasea hiru hilean behin sortuko da; norberaren borondatez ordaintzeko epealdia 60 egunekoa izango da ordainagiria emoten danetik; tasearen kargapekoek eskudirutan edo banku erakunde baten bidez ordaindu behar dabe. Tasea ordaintzen dabenean erabiltzaileek ordainagiria jaso behar dabe.

2.- Aldarazpen espedientea 30 asteguneko epean jendaurrean imintea; izan be, horretarako, iragarkiak argitaratu beharko dira Bizkaiko Aldizkari Ofizialean zein herriko taulan. Epe horren barruan interesatuek espedientea aztertu eta jagokezan arrazoibideak aurkeztu ahal izango dabez. Arrazoibiderik aurkeztu ezean, erabagia behin betikotzat hartu beharko da.

3.- Aldarazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egutegiko urtearen 1etik aurrera sartuko da indarrean, eta horrela jarraituko dau aldatzen ez dan bitartean.

Felix Jauregizar, Alberto Bilbao, Amets Jauregizar, Miren Luke Verdes eta Jon Peli Hormaeche zinegotziek, barriz, aurkako botoa emon dabe, eurak goian aitaturako arrazoiak dirala-eta.

2.- ONDASUN HIGIEZINEN GANEKO ZERGEA DALA ETA, KARGA-TASEAREN ALDARAZPENA BEHIN-BEHINEAN ONARTU.

Aitor Apraiz alkateak idazkariaren txostena irakurri ondoren eta zinegotzi guztiek gaiari buruz jakitun diran ezkeron —Landa Katastroko karga-tasea %1,1etik %1,26ra arte aldarazotea proposatzen da eta Uri Katastroko karga-tasea, barriz, %1,22tik %1,41era arte—, ia nornork zeozer esateko daukan galdetu dau, eta berehala eztabaidea zabaldu da.

Horrela bada, Felix Jauregizar zinegotziak adierazo dau Foru Aldundiak datorren urtean katastroen balorazioak berrikusteko asmoa daukanez, horregaitik bakarrik ez bada be jendeak ordaindu beharreko kuoten zenbatekoak aurtengoak baino handiagoak izango dirala, baina, horrerik karga-tasen %15eko igoerea gehitu behar jakola. Edozelan be, ganera, Foru Aldundiak kuotak urtero-urtero %2 igoten dauzala, eta, beraz, igoerea ez dala %15ekoa %17koa baino.

Alkateak erantzun deutso esanez Foru Aldundiak ondasun batzuen katastroen balioespenak igo egingo dauzan arren, beste batzuen, barriz, baxatu egingo dauzala, baina, dala-dala, horrek ez deusola eragingo udalak jasoko dauan diru kopuruari.

Azken horrek adierazo dau be gastu arruntak ahal dan gehien murriztu diran arren, halanda be orain baino diru sarrera arrunt gehiago lortzea ezinbestekoa dala zerbitzuen gastuei aurre egiteko, eta horregaitik uri eta landa katastroetako karga-tasak igo beharra dagozala.

Felix Jauregizarrek dino Bizkaiko landa katastroko karga-tasaren batz bestekoa %1,03 dala, Bakiokoa baino txikiagoa, eta 2000 eta 5000 biztanleko herrietan %1,09. Beraz, Bakioko karga-tasak ez dirala baxuak, antzeko biztanleria dauken herriekaz alderatu ezkeron, behintzat.

Alkateak dinotso herri horreetako katastroek lursail gehiago hartzen dabela, eta, beraz, tasak baxuagoak dirala.

Amets Jauregizar zinegotziak dino: EAJk udal gobernu kargua hartu ebanean herritarren beharrianak beteteko helburuakaz hartu ebala eta ez zergak igoteko finantza arloko jendearen asmoak gogobeteteko asmoz, ze oso gogorra da idazkariaren txostenean azaltzen dan hauxe “*resulta oportuno incrementar el gravamen de este impuesto ya que los impuestos a diferencia de las tasas son tributos que sirven al sostenimiento genérico de las necesidades financieras de los Ayuntamientos*”. Izan be, zergak ez dira finantzazino beharrianak asetzeko, herritarren baliabideak baino.

Aitorrek dinotso hiri ondasunen ganeko zerga eta beste diru sarrera arruntekaz gastu arruntak ordaindu behar dirala, zerbitzuak, interesak eta zorrak, besteak beste. Hori dala-eta eztabaida sortu da, Miren Luke Verdes zinegotziak zerbitzuak eta interesak bai, baina zorrak diru sarrera arruntagaz ez dala ordaindu behar esan daualako.

Idazkariak dino diru sarrera arruntekaz, beharginen soldata, gizarte segurantza, zerbitzuak eta maileguen amortizazioak eta interesak ordaindu behar dirala.

Ametsek dino zerbitzuak murriztu eta zergak igotea lotsagarria dala, ez dagoalako justifikatzeko modurik. Eta EAJk esatea zerbitzuak ordaintzeko zergak igo beharra dagozala, ez datorrela bat 2011ko udal hauteskundeak baino hamabost egun lehenago harek Herri Barriak aldizkarian egoera ekonomikoari buruz egindako adierazpenakaz; izan be, jasoten da 2010eko ekitaldiko udal aurrekontuaren likidazioaren arabera esan daitekela egoera ekonomikoa ona ez izan arren hoberantz egin dauala; izan be, aldizkarian adierazoten da, likidazio horren zenbatekoei erreparatu ezker, aurrekontuaren emoitza 750.014 euro superabita izan dauala, diruzaintzako gerakin garbiak 1.938 147 euroko defizita, ekitaldiko emoitza 3.000.000 euro inguruko superabita, eta abar

Elsa Imatz dino: idazkariaren txostena albo batera itxita, zerga igoeraren arrazoiaren oinarria Betean enpresak egindako auditoriari buruzko txostenean datza. Beraz, txosten horretan udalaren egoera ekonomikoa aztertu eta horrerri emon beharreko urtenbidearen artean ondasun higiezin ganeko zergaren karga-tasak igotea proposatzen da, gaur onartu gura dan proportzioan hain zuzen be.

Alberto Bilbaok adierazo dau adierazgarria dala zergaren igoerea justifikatzeko Betean enprearen txostenean oinarritzea, enpresa horrek urtebete lehenago beste txosten baten udalaren ekonomia ona zala adierazo ebanean. Eta beraz adierazpen hain kontrajarriak eginik, zergaren karga-tasak igoteko egindako proposamena ez daukala fidagarritasunik.

Iker Muruaga zinegotziak dinotso korporazio barria eratu zanean Betean enpresek auditoria egin ebal, eta eurentzat bertan azaltzen dana dala fidagarria, eta, lehen esan dan modura, zerbitzuen gastuei aurre egin gura bada, zergen eta tasen tarifak igotea ezinbestekoa dala.

Alberto Bilbaok dino zergen eta tasen igoerari buruz berba egiteko, 2011ko udal aurrekontuko likidazioa eta kontu orokorraren jaube izan beharko ginatela, gastuak eta diru sarrerak izandako bilakaerea jakiteko eta konparatzeko. Beraz, agiri horreek eduki barik, zergak eta tasak igo behar badira, ze proportziotan igo behar diran jakiteko non oinarritzen gara? Argi dago zergea igo behar dala, baina horretarako dokumentazio eduki behar dogu oinarritzeko igoeraren nondik-norakoa zein izan behar dan.

Aitor Apraizek dinotso: oinarria da Foru Aldundiak egin deuskun oharpena, hau da, Bakioko Udalak daukazan gastu eta diru sarrerak ezin dauala funtzionau, eta, beraz, zergen eta tasen tarifak igo behar dirala. Gastuak oraindino gehiago murriztu behar diran arren, hala eta guztiz be, diru sarrerak igo beharra dago.

Felix Jauregizarrek dinotso zorrak ordaintzeko Foru Aldundiari mailegua eskatzeko asmoa dagoan ezker, eta hori jasoteko dokumentazioa prestau beharra dagoala-eta, hor kokatzen dala zergen eta tasen tarifen igoerea, bere momentuan mailegua ahal izango dala ordainarazo justifikatzeko.

Azkenik, Aitor Apraiz alkateak dino botoa emoteari ekingo jakola, eta, hortaz, Aitor Apraiz, Floren Zabala, Gorka Renteria, Paloma Epalza, Iker Muruaga eta Elsa Imatz zinegotzien aldeko botoagaz, eurok korporazinoa legez osotzen daberen zinegotzien gehiengo osoa izanik, Bakioko Udaltzaren, erabagi hau hartu dau:

1.- Ondasun Higiezinaren ganeko zergea arautzen duan ordenantza fiskalaren eranskinaren aldarazpena behin-behineko onartzea, era honetara idatzita geratu daiten: Karga-Tasa (%): hiri-ondasunak 1'41; landa-ondasunak 1,26.

2.- Aldarazpen espedientea 30 asteguneko epean jendaurrean imintea; izan be, horretarako, iragarkiak argitaratu beharko dira Bizkaiko Aldizkari Ofizialean zein herriko taulan. Epe horren barruan interesatuek espedientea aztertu eta jagokezan arrazoibideak aurkeztu ahal izango dabez. Arrazoibiderik aurkeztu ezean, erabagia behin betikotzat hartu beharko da.

3.- Aldarazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egutegiko urtearen 1etik aurrera sartuko da indarrean, eta horrela jarraituko dau aldatzen ez dan bitartean.

Felix Jauregizar, Alberto Bilbao, Amets Jauregizar, Miren Luke Verdes eta Jon Peli Hormaeche zinegotziek, barriz, aurkako botoa emon dabe, eurak goian aitaturako arrazoiak dirala-eta.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagitzeko ez dagoanez, alkate jaunak batzar hau 20:20an emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkatea

Idazkaria